



ANAITASUNA

AÑO I — Núm. 7 • Suplemento a la Hoja
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Enero 1954

BENETAKO MAITASUNA

Gabonzar urrengo goizean, Urte Barri bateri «ondoetorria» emonaz, geure buruari ta maite doguzaneri «Urte Barri on» esaten deutsegu, geure borondate ona erakusteko. Ondo egiñal! Esku artean darabilguzan arazo guztieri, bizitzako gora-beera guztieri kristiñau usaiña emoten daki gure erlegiño santuak.

Baiña berbaz esaten doguna bizikeran agertuko bagendu...! Gure aziera onak — gure edukaziño ta urbanidadeak — irakasten deusku ori. Baiña aziera ona ez litzake kanpotikoa bakarrik izan bear, berbazkoa bakarrik ez, barrutikoa ta benetakoa baiño.

Esate baterako, erri aundietan ikusten dana: Etxeak aundiak. Zenbat bizitza? Amar... amalau... ogei? Zenbat famili? Amabost... ogei... ogetamar? Zenbat lagun? Berrogetamar... irurogei... eun? Lagunak ez dabe alkar ikusten eskillarak gora ta eskillarak beera izan ezik. **Buenos días. Buenas tardes.** Eta gero, **si te he vistó no me acuerdo.** Ori, urbanidadea izango da, baiña karidadea ez.

Erri aundietan ori jazoten bada, txikietan-be, orren antzera gabiltz.

Nor da ori, domekan domekan, zeure urren, lenago edo geroago konfesetan dan gazte ori? Nor da ori, goizean goizean, zu fabrikara zoazala, bera taillerrera doala, kalean zeugaz kurtze egiten dan ori? Zuk ozta ozta emoten deusazuz egun onak, eta berak ozta ozta erantzun. Baiña ez aaztu anaia dozula ta anaia zaituala, eta maite izan bear dozula, ez azaletikiko maitasunez, barrutikoaz baiño. **Maitasuna ez da bakarrik gorroto ez izatea.**

Onetaz gaiñera, pentsa eizu berak eta zeuk jatorri bat eta azken zorion bardiña dozuela: Jainkoa. Anaia dozu orduan. Anai bat-lez maite eizu, ba! Benetako anai bat-legez, alantxe da-ta!

Orrek ba-dakizu zer esan gura daben? Guztiok alkar ezagutu bear dogula. **Ezagututen ez danik ezin leiteke maite izan,** irakasten dabe filosofoak. Eta gero, zeure anai ori pozik ikusten badozu, poztu zaitetz beragaz; negarrez ikusten badozu, negar egin beragaz; naibagez ikusten badozu, naibagezu beragaz batera, ta lagundu al dozun neurrian.

Orra or benetako maitasuna ta karidadea.

AZKENENGO KURUTZEGRAMEAREN AZALPENA

Ezkerretik eskumaldera: 1. Zapaldu.—2. Apal. Ale.—3. Igar. Bei.—4. Aro. A.—5. G. Ez. 6. Malo. Ede.—7. Zoli. Nor.—8. Atondu. I. Goitik beera: 1. Zaragoza.—2. Apar. Lot.—3. Pago. Ola.—4. Ali. Min.—5. L. D.—6. Deba. Uñe.—7. Ule. Edo.—8. Ai. Zeru.

KURUTZEGRAMA N.º 5

	1	2	3	4	5	6	7	8
I								
II								
III								
IV								
V								
VI								
VII								
VIII								

Ezkerretik eskumaldera: 1. Bizkaiko itxasertzeko erria.—2. Siku. Itxasertzetan ngari egoten da.—3. Itxaso zabalean arrantzurako lekua. Cisneros Kardenala il zan Burgosko erria.—4. Ganaduarentzako bedar gozoa. Vokal letrea.—5. Konsonante letrea. Ez emen ez or.—6. Beste bateri zeredozer eskuetan ipiñi. Donostiko futbolaria. — 7. Zirkin eragiteko deia. Atsekabea.—8. Esplikatu. Vokal letrea.

Goitik beera: 1. Bilbon jaioriko euskal idazlea, 1653'an *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* idatzi ebana.— 2. Narruzko zinta. Katuari dei egiteko.—3. Modu orretara (atzekoz aurrera). Ura ta urunaren naastea.— 4. Gauza bat jausten daneko zaratea. Bearra (atzekoz aurrera).—5. Vokal letrea. Konsonante letrea.—6. Karobian arria erreta egiten dana. Buruan daukogu (atzekoz aurrera).— 7. Eguraldi. Txarri arra.—8. Lekeiño ta Elantxobe bitarteko erria. Ez da zurea, arena be-za-

8. Ea. Nire. Lant.—5. A. D.—6. Kare. Ule.—7.—Aro. Apo.—ta.—2. Ugal. Miz.—3. Olan. Ora.—4. Dra. Lor.—8. Azaldu. E. Goitik beera: 1. Mikole-4. Oio. E.—5. L. An.—6. Emon. Epi.—7. Tira. Mوندাকা.—2. Igar. Are.—3. Kala. Roa.—

AZALPENA. Ezkerretik eskumaldera:



BATEOKO SAKRAMENTUA

1.—Bateoko Sakramentua balio izateko moduan emoteko, emen esaten doguzanetarik zeintzuk dira naitanaiezkoak?

- Bateo emoillea graziazko es-taduan egotea.
- Bateo emoillea bateatuta e-gotea.
- Eleiza Katolikoa, Kristoren Eleiza egiazkoa dala siñes-tu, ezagutu ta autortutea.
- Bateatuten danari ura bota ta aragia bustitea.
- Ura ixurten jakon bitartean berba oneexek esatea: "Nik bateatzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu San-tuaren izenean".
- Kristok sortu eban Bateoa emoteko asmoa, eta Eleizeak egiten dabena egiteko inten-tziñoa eukitea.
- Bateatuten dan personeak, errazoiaren jabe izan ezker-o — 7 urtetik gorakoa —, Ba-teoa artzeko intentziñoa eu-kitea.
- Errazoiaren jabe za bada —7 urtetik beerakoa—, bere gurasoak edo gurasordeak ekartea.

(Erantzupenak azkenengo paginán)

Aita Santu Pio XII'garrenak Andra Mariaren Urte Santurako egindako

OTOITZA

O Maria, sortzez garbia, Jesusen Ama eta gizonena! Zure edertasunaren edertasunaz begiak argituta, eta munduko zoritxarren aurrean gure arimak arduraz beterik, zure besoetara gatorkizuz. Uste osoa daukagu zure biotz maitagarri orretan. Bertan aurkituko dogu gure gurari gartsuen betetasuna, ta munduko ekatxen artean gure portu ta estalpe segurua.

Gure gaiztakeriakaitik lurra jota egon arren, gure atsekabe ta ezbearren artetik zeugana jaso gura doguz begiak, eta zure doi miragarrien aberastasun neurri bagea kantatu. Izan-bere, ugariak dira zure sortze garbiaren lenengo unetik asita, zerura jasota gero, zeru-lurren Erregiñatzat koronatu zinduzan arteraño, Jaunak emon eutsuzan graziak. Kristo gure Jauna kendu ezkerro, graziaz zu baiño apainduagorik ez da iñor izan kreatura guztietan.

O gure siñesmen santuaren iturri garbia! Busti eizuz gure gogoak betiko egien euri gozoaz. O kristiñau erriaren lirio ederra! Zeuganatu gaizuz zure zerutar usain eztitsuaz. O gaiztakeriaren eta eriotzearen ondatzaille indartsua! Emoiguzu pekatuarentzako gorroto sakon bat, Jainkoaren aurrean iguingarriak eta inpernuaren menpekoak egiten gaituan pekatuarentzako gorroto bizia.

O Jaunak maiteen zaituan Ama samurra! Entzun zeuri eskiñiriko Urte Santu onetan kristiñau zintzo guztiakandik joatzun deadar beroa. Makurtu zaitez gure zauri minberatuetara. Aldatu eizuz onerantz deungen asmo zitalak. Legortu atsekabetuen negar malkoak, poztu pobreak eta umillak, amatau alkar ikusieziñiak, gozatu ekandu gogorak, zaindu gazteen artean garbitasunaren lorea, artu Eleiza santua zure mantupean, eta gizadi guztiak sentidu daijala kristiñau bizitzearen edertasuna.

Zeruetan ain gozo entzuten dan zure izenean, batak bestea anai-arrebatzat artu daijala. Munduko naziño guztiak famili bat egiñik, guztiori bake santu, oso ta benetakoaren eguzkiak argi egin deiskula.

Artu eizuz, Amarik gozoen orrek, abegi onez gure eskariak. Eta emoiguzu, arren, zure altara aurrean jasoten dogun kantua, egunen baten zeugaz batera kanta daigula: Guztiz ederra zara, Maria! Zeu zara gure aintza, Zeu alaitasuna, Zeu gure erriaren gloria. Alan izan daitela.



Jakin ba...

DE MARIA NUMQUAM SATIS

Irakurle: Bearbada or goiko latiniñozko orrek zer diñoan ez dozu jakingo.

Andra Maria Jainko eta gizonen Amaren anditasuna agertzeko ez gareala gauza esan gura dau. Gure berba, gure kantu, gure indar guztiak, bear dan baiño beerago beti ibilliko direala, egoki litzaken neurrira eldu eziñik.

Berba oneek, Eleizako maixurik geienak eta argienak artu ditue erdutzat, Andra Maria goratuteko eta alik geien maiteragiteko.

Pio XII, gure Aita Santuak-be, esan leiteke berba oneek beretzat autatu ditnala, Andra Mariaren Urte Santu onetarako beintzat. Ain ederrak dira bere eskutik urten dabentziklika ta beste ainbat dokumentu miragarriak, azalez eta mamiñez, itxuraz eta dotriñaz, apain bezain sakonak!

Dokumentu oneen artean balio aundienetakoa dozu, ementxe ANAITASUNA onetan, topaunko dozun **Otoitza**. Ebagi eizu artasiakaz polito polito, eta arduraz tolostuta, gorde zure meza liburutxoan. Edo obeto, etxean euki leku jakiñean, egunean egunean, errosario ostein familiar errezau daizuen. Onen onena, guztiok buruz ikastea, al danik sarrien esateko.

1.—Bateoko Sakramentua, balio izateko moduan emoteko, Emoillearen aldetik **d**, **e** ta **f** dira naitanaiezkoak. Au da:

- d) Emoilleak, Bateoa artzen dabenera ura bota bear deuto, urak aragiarenga iñetik korridu ta azala bustiteko moduan.
- e) Emoilleak, ura ixurten dabentartean, berba oneexek esan bear ditu: «Nik bateatzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren ize-nean».
- f) Emoilleak, Kristok sortu eban Bateoa emoteko asmao euki bear dau, eta Eleizeak egiten dabena egiteko intentziñoa.

Bateoa artzen dabeneren aldetik, **g** letran esaten dana, naitanaiezkoa da. Ona emen:

- g) Bateoa artzen dabena, errazoiaren jabe bada, Bateoa artzeko intentziñoa euki bear dau.

IRAKURRI "ANAITASUNA"

Zabaldu lagunaren artean euskerazko eleizorri au

Eskabideak direziño onetara:

P. Rector del Colegio Seráfico

PP. Franciscanos

FORUA (Vizcaya)

Dirección responsable: R. P. Director de "ANAITASUNA" TOLOSA (Guipúzcoa)